

## Tarradellas: zahartzaroan baztanga

Deia, 1983-06-24.

Katalunia, Euskadirekin kidetasun bereziak dituen herria dugu: Estatu batetan nazionalitate oso izateaz gainera, bi herriak daude era berean Europan sarturik, gure leihoak Europara irekiak egon dira beti.

Arazo batzuetan, baliteke katalanak aurreratuagoak egotea; kultura mailan, merkataritzan.

Baina ez bestetan, batez ere oso zaharra ez den politika alderdiari begiratzen badiogu. Euskadi izan da herritasunean eta Europako dei politikoan ere urrats handi eta sakonagoak egin dituen: bigarren mundugerraren bezperan, gerratean bertan eta gero gerra ostean, Agirre Lehendakariaren gobernu eta honen gizonak aurrerago eta ausartago ibili ziren Europa barria eraikitzeke egin ziren ahalegin handi haietan.

Aitzindari nabarmenak izan ziren gure ordezkariak.

Hemen, egokiera haietan, izan zuen Tarradellas jaunak Kataluniaren ahotsa jasotzeko egokiera ederra.

Ez zen ekimenetan, ez eta jarraipenetan ere, asko gailendu.

Katalunia berez bertan egon zen arazoetan ere, ez zuen gizon honek gureen prestapen ez prestasunik ere izan, ez eta gero ere, hogeitahamarka urteko basamortu luze eta nekagarria gurutzatzeko itxaropenak hutsetik atera behar ziren denboraldietan herri bat zutik senti-arazteko gure Jaurlearitzak herrian bertan eta herritik kanpora, mundu guztian, erakutsi zuen ardura eta erresponsabilitatea ere. Azken arte, gure bigarren Euskal Jaurlearitza sortzeko une berberarte.

Non zebilen une haietan Tarradellas jauna?

Bere etxean, lasaiki, mahastiak zaintzen.

Franco hil bezain laister piztu zen gizontzar hau. Hor agertu zen Guadiana politiko-opportunistaren baten legez, eta orduan Madrilgo lokarretik zintzilikari, ginol bat bezala, eta bereak konpon ezin eta Euskal Herriko ahalegin kritiko haietan gure maisua balitz bezala lezioak ematen.

Leizaola bati!

Hau dena nahikoa ez dela, orain *Interviu*-ko megafonotik karraxika hasia da: estatuko kongreso osoa bahituta eduki zuten militarrei Konstituzioan mugatuta dauden legeaz ezarri zaizkien zigorrak barkatu eta bahitzaileak kaleratu behar zituzkeela!

Golpista baten deklarazioak ari da egiten.

Orain, zahartzaroan baztanga!

Ez du, ez, Kataluniak hau merezi! garai bateko Companys-ek, oraingo Pujolek, meritutzen zuten beste bitarteko gizona!